



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek, autokarabanak aparketako gune bereziak jasoko dituan lurralde plana diseinetako agindua emon deutsie Aldundiari

Bilbon, 2014ko urriaren 31n

Batzar Nagusiek eskaria egin deutsie gaur Aldundiari, talde guztien aho bateko erabagiz, lurralde plan bat diseinatu daian, Bizkaiak autokarabanak eta antzeko ibilgailuak aparketako leku bereziak euki daizan, hondartzetan eta intereseko uri-guneetan. PP-k bultzatutako ekimenak PSE-EE taldearen zuzenketa-eskea jaso dau, azterlan hori egiteko orduan “autokarabanen erabiltzaileen alkarteen eretxia kontuan hartu daiten”.

PP-ren eretxiz, hondartzetako aparkalekueetan eta “Guggenheim museoaren inguruak bezalako” Bizkaiko intereseko lekuetan egoten diran eta gaua igaroten daben furgonetak eta autokarabanak modu “desegokian” egiten dabe, eta horrek arazoak sortzen ditu leku horreetako ohiko erabiltzaileakaz. Jesús Isasiren ustez, lurraldean plaza bereziak eskini dira ibilgailu horreetzat, baina non dagozan kontuan izanda –intereseko turismo puntuetatik urrun– “gitxi” erabilten dira. Hori dala eta, bere taldeak proposamena egin dau, Aldundiak azterlana egin daian, leku egokiagoetan, holango ibilgailuek behar dituen oinarritzko zerbitzuak izango dituen plazak sortu ahal izateko.

Batzarretako ganerako taldeak (EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE) neurriaren alde agertu dira. Joaquín Colmenero sozialistak txalotu egin ditu holango azpiegiturak, azken urteetan autokarabanaz eta furgonetaz egiten dan turismoa “gero eta garrantzitsuagoa” dalako, eta autokarabanen erabiltzaileen alkarteen eretxia kontuan hartu daitela eskatu dau, horreek diralako ibilgailu horreen “beharrak inork baino hobeto ezagutzen dituenak”.

EH Bilduk eta EAJ-PNV-k be autokarabanak aparketako plazak sortzea defendidu dabe, baina horreen eragina jasoko daben udalerriaz “koordinata”. Aitor Torre koalizino abertzalearen bozeroaleak Sopelako Udalaren ekimena azpimarratu dau. Ekimen horren bitartez “Autokarabanentzako Bizkaiko lehenengo aparkalekua” sortu da, “60.000 euroko” inbertsinoa eginez. “24 plaza izango ditu”. Nerea Ahedo jeltzaleak azpimarratu dauenez Aldundia gune berezi horreek lantzen hasiko da, lehenengo jarduketea Urdaibain aurreikusita daukan Mobikortasun Iraunkorreko Planen barruan.

BI-3602 ERREPIDEA HOBETZEA KILOMETRO BI BAINO GEHIAGOKO ZATIAN, ZALLAN

Beste alde batetik, Itziar Garamendik, Herri Lan eta Garraio Foru Diputatu andreak, PP taldeak eskatutako agerraldian, BI-3602 errepidea hobetu egin dala jakinarazo dau, 24+840 eta 27+240 kilometro puntuen artean. Obra horren arduradun nagusia Foru Aldundia izan da, baina Zallako udal zerbitzuek be hartu dabe parte, eta hori dala eta, proiektua “ohikoa baino gehiago” luzatu da, Aldundiko arduradunak adierazo dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Obra horri esker, bideko segurtasuna hobetu egingo da, ikuspegi bitatik: “errepideko trafikoaren eta oinezkoen trafikoaren ikuspegietatik”. Jarduketea egin dan zatiak La Llana, La Isequilla, La Barga, La Flor, Ahedo eta Otxaran auzoak hartzen ditu. Lizitazioaren aurrekontua 2.998.545,76 eurokoa da (BEZ barne), eta burutzapenerako epea 12 hilebetekoa da. Aurreikuspenak betetan badira, “datozan asteetan deituko da lizitazioa”, iragarri dau Garamendik. Diputatu andreak azaldu dauenez, kopuru horri, 346.704 euroko balioa daukien udal obrak gehitu behar jakoz.

Bidearen hobekuntzari jagokonez, “trazaua hainbat puntutan hobetuko da, eta sarbideak be hobetuko dira”, horreen artean Muebles el Paraísoko sarbidea, bertan erdiko erreiak egokituko diralako, biraketak errazteko. Oinezkoen segurtasuna hobetzeko espaloia eregiko da, auzoak komuniketako, eta oinezkoek errepidetik ibili ez daitezana, “errepidetik ibilteak kotxeek harrapetako arriskua daukalako”. Ganera, zati horretan hiru autobus geraleku be diseinatu dira. Horreetako bi Muebles el Paraíso parean egongo dira, eta azkena Otxaran auzoan, Balmasedako noranzkoan.

AMOREBIETA-GERNIKA ERREPIDEAREN LEHEN FASEKO OBRAREN EGOEREA

Beste alde batetik, EH Bilduk, Amorebieta-Gernika autobidearen lehenengo faseko lanen egoerari buruzko argibideak eskatu ditu. Beste puntu batzuek aparte, koalizino abertzaleak, jakin gura izan dau ea atzerapenik ete dagoan lanotan eta atzerapenon errazoia ea izan ete leiteken Autzaganeko tunelak egitean “akuiferoak eta iturburuak” agertu izana, eta baita hori dala-eta ea “gain-kostu” ekonomikorik egongo ete dan be.

Garamendik jakinarazo dauenez, urriaren 3an gai berari buruz izandako agerralditik ez da “barrikuntza handirik” gertatu. Egun haretan jakinarazo zan moduan, obrak amaitzeko aurreikusita dagozan epe “partzialak eta amaierakoak errazoiz ari dira beteten”. Meteorologiak horretarako aukerea emoten badau, aide zabaleko obrak “2015eko udabarrirako” amaitzea aurreikusten da, eta Urdinbideko tunelak be urte bereko “udabarri-udan” bukatuko dira.

Diputatu andreak adierazo dauenez, lur azpiko obra “une honetan” dago akuiferoaren inguruan. “Irazgaxteko injekzioen burutzapen beharrak, aurkitutako materialera eta bertan dagozan ur-emarietara egokitu behar dira. Hori dala eta, gatxa da zehaztasun osoz esatea zati horren hondeaketa lanak noiz amaituko diran”, esan dau. Beharrezkoak diran baliabide eta ekipo guztiak prestatu dira, epe hori “ahalik eta laburrena” izan daiten.

EH Bilduk egindako galderei erantzunez, diputatu andreak esan dau akuiferoaren presentzia “aurreikusita egoala” URAk (Uraren Euskal Agentziak) eta Foru Aldundiko Ingurumen sailak baimendu eben eraikuntza proiektuan, eta bertan, medio hidrogeologikoa babesteko hartu beharreko neurriak aurreikusten zirala. Gai beragaz erlazionauta, Garamendik esan dauenez, orain arte, obraren burutzapenean “ez da oso ezuste ekonomiko garrantzitsurik egon”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Juntas Generales insta a la Diputación a diseñar un plan territorial que incorpore áreas específicas para el aparcamiento de autocaravanas

Bilbao, a 31 de octubre de 2014

Las Juntas Generales han instado hoy a la Diputación, por unanimidad de todos los grupos junteros, a que diseñe un plan territorial para que Bizkaia cuente con áreas específicas de aparcamiento para autocaravanas y vehículos similares en playas y áreas urbanas de interés. La iniciativa impulsada por el PP ha incorporado una enmienda del PSE-EE para que, en la elaboración de este estudio, se “cuente con la opinión de las asociaciones de autocaravanistas”.

El PP cree que las furgonetas y autocaravanas que acampan y pernoctan en parkings de playas y lugares de interés de Bizkaia “como los alrededores del museo Guggenheim”, lo hacen de forma “inadecuada”, lo que provoca problemas con los usuarios habituales de estos espacios. Según Jesús Isasi, en el territorio se han ofertado plazas especiales para estos vehículos, pero su localización – alejados de los puntos turísticos de interés - hacen que su uso sea “escaso”. Por eso, plantean que la Diputación realice un estudio para crear plazas mejor ubicadas en las que se incluyan los servicios esenciales para este tipo de vehículos.

El resto de grupos de la Cámara vizcaína (PNV, EH Bildu y PSE-EE) han apoyado la medida. El socialista Joaquín Colmenero ha aplaudido este tipo de infraestructuras porque en los últimos años el turismo de autocaravana y furgoneta es cada vez “más importante” y ha pedido que se cuente con la opinión de las asociaciones de autocaravanistas, ya que son ellas “las que mejor conocen las necesidades” de estos vehículos.

EH Bildu y PNV han defendido también la creación de plazas para autocaravanas pero “en coordinación” con los municipios afectados. El portavoz de la coalición abertzale, Aitor Torre, ha destacado la iniciativa del ayuntamiento de Sopela de crear “el primer parking de autocaravanas de Bizkaia”, tras una inversión de “60.000 euros” que dispondrá de “24 plazas”. Por su parte, la jeltzale Nerea Ahedo ha destacado el hecho de que la Diputación va a empezar a trabajar estas áreas especiales en el marco de los Planes de Movilidad Sostenible en los que se contempla una primera actuación en Urdaibai.

MEJORA VIARIA EN MÁS DE DOS KILÓMETROS DE LA BI-3602 EN ZALLA

Por otro lado, la diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha informado, en una comparecencia solicitada por el PP, de la mejora de la carretera BI-3602 entre los puntos kilométricos 24+840 y 27+240, una obra liderada por la Diputación que va a contar con la inclusión de servicios municipales del Ayuntamiento de Zalla lo que ha ocasionado que el proyecto se haya alargado “más de lo habitual”, según la responsable foral.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Esta obra consiste en la mejora de la seguridad vial de esta carretera desde dos vertientes: “la del tráfico rodado y la del tráfico peatonal”. El tramo de actuación transcurre a su paso por los barrios de La Llana, La Isequilla, La Barga, La Flor, Ahedo y Otxaran. El presupuesto de licitación es de 2.998.545,76 euros (IVA incluido) y cuenta con un plazo de ejecución de 12 meses. Se espera que “en las próximas semanas se pueda sacar a licitar”, ha anunciado Garamendi. Ha explicado que a este montante habrá que sumar obras municipales por valor de 346.704 euros.

En lo que concierne a la mejora de la vía, “se mejora su trazado en varios puntos y se mejoran los accesos existentes”, entre ellos la entrada a Muebles el Paraíso, en la que se habilitarán carriles centrales para facilitar los giros. Para mejorar la seguridad de los peatones se construirá una acera para comunicar los distintos barrios, evitando que los peatones circulen por la carretera, “con el consiguiente riesgo de atropellos”. Además, se han diseñado tres paradas de autobús a lo largo del tramo. Dos de ellas, a la altura de Muebles el Paraíso y la última, en el barrio de Otxaran, en sentido Balmaseda.

ESTADO DE OBRA DE LA PRIMERA FASE DE LA AMOREBIETA-GERNIKA

Por otro lado, EH Bildu solicitaba información del estado de las obras de la primera fase de la Amorebieta-Gernika. Entre otras cosas, la coalición abertzale quería conocer si existían retrasos en la obra como consecuencia de la aparición de “acuíferos y manantiales” en la construcción de los túneles de Autzagane, así como si supondría algún “sobrecoste” en la obra.

Garamendi ha señalado que, desde la comparecencia del 3 de octubre sobre este mismo tema, no se han producido “grandes novedades”. Al igual que como informó en aquella cita, los plazos “parciales y finales” previstos para la conclusión de las obras “se están cumpliendo razonablemente”. Si la meteorología lo permite, la ejecución de las obras a cielo abierto se espera concluir para “primavera de 2015” y los túneles de Urdinbide estarán finalizados “en primavera-verano” del mismo año.

La diputada ha señalado que la obra en los subterráneos se encuentra “en estos momentos” en la zona del acuífero. “Los trabajos de ejecución de las inyecciones de impermeabilización se deben adaptar al material encontrado y a los caudales existentes por lo que es complicado asegurar con exactitud el plazo de finalización de la excavación en este tramo”, ha dicho. Se han dispuesto los recursos y equipos necesarios para que este plazo sea “el menor posible”.

A preguntas de EH Bildu, la diputada ha señalado que la presencia de los acuíferos “estaba prevista” en el proyecto de construcción que fue autorizado por URA (Agencia Vasca del Agua) y por el departamento de Medio Ambiente de la Diputación, en donde se incluían medidas a adoptar para la preservación del medio hidrogeológico. En este sentido, Garamendi ha señalado que hasta ahora, en la ejecución de la obra “no ha habido imprevistos económicos muy significativos”.